


Intxaurrondo

Prost! esateko garaia

Dena prest dago, Intxaurrondoko Justo Elizaran parkean, garagardo feriarren 10. edizioa hasteko. Ekainaren 5etik 14ra bitartean 40 garagardo mota ezberdin dastatu eta, urtero bezala, saltxitxak eta txerri-ukondoa jateko aukera izango da.



Laurogei lagun lanean arituko dira garagardo feriarra gerturatzeko den jendea zerbitzatzeko. Arratsaldeko 18.00etatik 00.00ak arte izango da zabalik Justo Elizaran parkean jarri duten karpak, baina 11.30ean zerbitzatzeari utziko diote. Intxaurrondoko Gastronomía Elkarteak antolatutako ekimen honetara 4.000 edo 5.000 lagun inguru gerturatzeko dira egunero. "Egun guztiak antzekoak dira, eta ez dago, jendetza dela eta, na-

barmentzen den egunik. Agian, ostegun eta ostiraletan jende gehiago egoten da, baina ez askoz gehiago", esan digu garagardo festako ardura-dunetako batek.

Aurten ere 'metro' izeneko gune berezia izango da frontoian. Gune honetan aldez aurretik mahaiak erreserba daitezke, ordubeteko eta pertsonako 1,5 euro ordainduta. Bertan, garagardo metroka zerbitzatzeko da —hau da, 12 garagardo pitxarretako taldetan—. Erreserba 620 949 117 telefonora hots eginez edo garagardo ferian bertan egin daiteke.

Bestalde, aurten autobus zerbitzu bereziak izango dira Garberatik Zubiaurre pasealera joateko, jendeak autoa han utz dezan.



Alemania-koak eta Txekiakoak preziatuenak

Alemania, Txekia, Britainia Handia, Euskal Herria eta beste hainbat herriak 40 garagardo mota dastatzeko aukera izango da aurten ere Intxaurrondoko Gustuak gustu. Alemaniar eta Txekiako zerbezak eskatzen dituz jendeak gehien. Hona hemen Alemaniar eta Txekiako zerbaiz garagardoen ezaugarriak.

Paulaner Salvator: 'Ogi-likido' izenez ezaguna. Garai batean monjeek egiten zuten, baina aurrerantzean lagungarri gisa. Garagardo sendoa, malta zaporeduna eta kolore ilunakoa da. Alkohol maila %7,5 da.

Krombacher Pils: Krombach herrian egiten dute. Garagardo garbia eta usaintsua da. Ukitu mingots batekin. Alemaniar gehien saltzen den garagardo da. Alkohol tasa %4,8 da.

Lounsky Lezak: Louny eskualdean egiten dute garagardo beltz hau. Oso erraz edaten da, alkohola gutxi du eta %5,1

SAGARDOAREN SUSTAPEN SOZIOKULTURALERAKO SORTURIKO ENTITATE BERRI BATEK

KUDEATZAILEA BEHAR DU

- Prestakuntza akademiko egokia eta komunikaziorako, planifikaziorako eta ekimenerako gaitasuna duena.
- Zuzendaritza batzordearekin elkarlanean aritzeko.
- Entitatearen garapena sustatu eta helburuak lortzeko.
- Entitatea osatzen duten elkarte eta erakundeak motibatuzko

Gure eskaintza: urtebeteko lan-kontratua, egun endirako, eta dedikazio handiagoko behin betiko kontratua egiteko aukera.

Curriculumak bidaltzeko epea: ekainaren 6a, 13:00ak baino lehen.
Helbidea: Kale Nagusia 48, 20.115 Astigarraga edo
au.kultura@astigarraga.net Erreferentzia: SAG.KUD.

KONPONKETA ETA OSAGARRIAK 2. ESKUKO TXIRRINDEN SALEROSKETA

Madril hiribidea 24

Tel.: 943 470 001
656 701 024



Argitalpen honen edizioan lankide:



kutxa
gizarte ekintza